

Xabi Duhalde

Gazteriak taldeko bozeramailea

Lot gaiten lanari!

■ ETak aurrerapauso garrantzitsu bat eman du mendez mende bizi ohi dugun bi estatu zarpaitzaileen kontrako gatazka honetan. Bere inizatiba politiko berri honek gatazkaren argipen izugarrikoa eman du, bakoitza gure arduren aitzinean jarritz, bakoitza gure tokietan jarritz. Baliteke zer erran bere agiriaren mamiaz. Nire aldetik gauza garrantzitsu bat atxikitzen dut.

Ezinbestekoa iruditzen zait berriz gogoraraztea agiria nori zuzendua den, su-etenaren berri emaiten duen idazki luze hau ez baita espainol edo frantses estatuei zuzendua baizik eta Euskal gizarteari. Gaur egun, agiri honekin, pilota, bistan da, espainol eta frantses estatuen esku da; baina hein batean gure eskuetan da, Euskal gizartearen esku da inizatibak hartzea eta urratsak egitea ETak proposatu berri duen ekimena iraunkor izan dadin.

Iparraldean nolako aldaketa ekar dezake orain hasten den fase politika berri horrek? Erran gabe doa, historian zehar eta orain ere, hegoaldeko egoera politikoak bere oihartzunak, edo bere ondorioak, ukan dituela Iparraldeko egoera politikoan.

Bainan, orain arte ikusle bezala egon baldin bagara ere, gaur egun, fase politiko berri honen partaide aktiboak gara. Lizarrako agiria, besteak beste, Abertzaleen Batasunak ere izenpetu du. ETak bere agerian proposatzen dituen gako zenbaitzuen artean lurraldetasunarena agertzen da. Bi ekimen nagusi hauek aldaketa sakonak ekarriko dituzte Iparraldeko egoera horretan. Ez baikara baskongadetako edota Nafarroako arazoaren konponbidez ari, baizik eta Euskal Herria osatzen dituzten zazpi (edo sei, nola ikus) probintziek bizi duten gatazkaren konponbide orokorraz.

Idazki honen hastapenean bi ekimen nagusi horien oinarri demokratikoa agertzen nuen. Hau da, bi ekimenetan galdegiten da ororen buru euskal gizartearen hitza errespetatua izan dadin. Ez da hemen inolako inposaketarik edo baldintzarik.

Orduan, euskal gizarteak urratsak egin behar ditu, hitza berreskuratu behar du. Gisa horretan, guri dagokigu gauzak aitzinaraztea. Eta Iparraldeari dago-

Segi dezagun beraz mundu guziari erakusten herri honek, beste guziek bezala, bere etorkizuna askatasunean oinarriturik izaiteko eskubidea duela. Joan gaiten denok elgarrekin, urratsez urrats

kionez badugu lan. Gure lurraldeak ez du oraindik ezagupen ofizialik, gura ama hizkuntza, Euskara, alde guzietatik erasotua da, eta ez du ere bere geroa segurtatuko duen ezagupenik, euskal preso politikoei betiere Frantzia aldeko presoedegietan barreiatu-rik segitzen dute... Guri dagokigu, beraz, duela 30 urte hasi genuen lana segitzea eta indartzea. Guri, gizartearen sektore desberdinekin lanean aritzea, gure etorkizunaren ikusmoldea zabaltzea, gure abertzaletasunaren zentzua esplikatzea. Lehen aipatu ditudan lan erronkek oihartzun ona biltzen dute gizartean, behingotz gizarteari hitz egiten dugunean ulertzen gaitu, gurekin bat egiten du.

Denbora berean joan gaiten, denok elgarrekin, Euskal Herria pixkanaka-pixkanaka eraikitza. Egia erran badugu lan konkretu bat eramateko Iparralde honetan, hemengo biztanleei zuzendutako izugarriko sensibilizazio edo kontzientziarazte lana egiteko dugu. Bainan dagoeneko hasi behar dugu herri bakar gisa pentsatzen, Ipar zein Hegoaldeko ekimenetan oinarri nazionalak jartzen hasi behar dugu lehenbailen. Segidan gauzatzen ahal da borroka batzuetan: Euskararen ofizialtasuna Euskal Herri guzian, Euskal Presoak Euskal Herrirat ekartzea, euskal lurraldearen antolatzea, euskal selekzioa martxan jartzea... eta abar.

Erran gabe doa aro politiko berri honek gauzak lagunduko dituela. Mundu guziaren aitzinean agerian utzi izan da herri honetan inizatiba noren eskutik heldu den. Herri honen etorkizun demokratikoa nola segurtatuko den. Segi dezagun beraz mundu guziari erakusten herri honek, beste guziek bezala, bere etorkizuna askatasunean oinarriturik izaiteko eskubidea duela. Joan gaiten denok elgarrekin, urratsez urrats, Euskal Herria bere osotasunean eraikitza. Euskararen ofizialtasuna zazpi probintzietan, Euskal Presoak Euskal Herrirat ekartzea... hauek dira bihar irabaziko ditugun borroak; demokrazia, askatasuna, batasuna eta justizia soziala, etzi irabaziko ditugun borroak. Bidea luzea izanen da, orduan ez dezagun denborarik gal, lot gaiten lanari! ■

Maribi Unamuno



Herri txikiak eta DBH

luntzea, etxea erdi hutsik eta kanpoan hain gustuko dudan udagueneko freskura; giroa, beraz, aproposa da. Kontua zutabe honetan tonu egokia lortzea da eta hori, tamalez, ez dute kanpo baldintzek bakarrik ekarriko.

Politikaz, maitasunaz, poesiaz, lagunez, lanaz zein hedabideetan egunero irakurri eta entzun ditzakegun hainbat hautuz, gehienak ez atsegin-egiak, idatz dezaket; hala ere, esparrua asko estutuz, DBHko (Derrigorrezko Bigarren Hezikuntza) ikasleen eskolara itzultzea hartuko dut gaitzat, astelehen pasadan zortzi hasi zitzaienta ikasturtea.

Aurten hirugarrenez, herri txiki baten bizi izatea aukeratu dugunon seme-alabak, 12 urtetik gorakoak hain zuzen, euren herriatik kanpora joango dira herri handiagoetako eskoletara. Autobusak goizero sasoiz, herri txikietako lozorro teorikoki atzerakotik hirietako aurrerapidera gazteok bideratu nahian.

1996an hasi ziren ikasleok bideetan atzera-aurrera, euroi zer komeni zaien erabakitze-ahalmena dutenek ez zutelako ulertu nahi izan gurasook geure seme-alabak hainbat luzaroen herrietan gara daitezen hobestea.

Gure desadostasuna agertu genien otu zitzaizkigun eretan. Seguruenik, atera genuen erresistentzia indarra jada aurreikusia zuten; edozein aldaketa zabali kalkula dakioketena baino handiagoa izan zela? Badaiteke, baina ahal izan zuten moduan eutsi zioten sortu genuen zurrumbiloari, inoiz ere ez zuten onartu irizpide ekonomikoa zela agintari eta, azkenean ere, guk aurkeztutako irtenbide ez proposamen alternatiborik (irakurri?) landu ez eztabaidatu barik, inguru bakoitzak beharko lituzkeen egokitzapenak egin barik, herri txikiengan, handietan zein hirietan, erreforma ezarri zuten.

Ez zuten gu komentitzeko nekea hartu eta geratu zitzaigun zauria, ikasturtea hasten den bakoitzean, edegi egiten zaigu.

Kornerra

Mikel Elorza

Dopinak eta markak

■ Bazterrak nahasiz datoz notiziak, Karibeko hurakanak bailiran. Sexua, gezurak eta bideo-zintak EEBBetan, bukatzen ez den soka astunean. Ez omen dago, hala ere, bideorik Clintonek Sudanen egindako ejakulazioaz. Frantzia, berriz, kirol agintariak irainak ohore bihurtzen. 40 urte bete gabe hil da Florence Griffith atleta, kirol-marka izugarriak, pentsaezinak egin eta berehala lehiaketak utzi zituen, badaezpada ere. Heriotza dopatu izanarekin anitzek zuzenean harremanatu du. Frantzia esango dute, haur ernagatu moduan: «Ikusten nola arrazoizkoak ziren Tourreko gure miaketa, kontrol eta atxilo-ekak. Kirolarien osasunaren alde gabiltza!». Espainian, azkenenik, aspaldiko ika-mikan: apezpikuak fededunak manifestazioetara bidaltzen; eta besteak apezpikuak pikutara bidaltzen. Emaizta gorabehera, 14 urtez gehiengo baliatu ez duen PSOE abortatzearen aldarrika ikustea marka da gero, Griffithena baino handiagoa. Baina tira, hauek ere urteak dar-matzate dopatuta.

L A P h I T Z A

